

Mutikoak denbora usiatu eta armagin ofizioa ikasi behar duela erabaki dute tailerrean.

“Lehenengo lana limatzen ikastea da” esan diote Martintxori. Esan eta egin, burdin pusketa bat eta limarik handiena eman dizkiote.

Laster amaitutako altzairuzko pieza berri pila bat emango dizkiote limarekin bizarrak (laxturak) kentzeko.

Martinek

Baskulagin izan nahi du

Tornuaren aurrean kokatu dute. Ris, ras, ris, ras...

Bi eskuak erremintan dituela metala jaten doa.

Sekula baino gogo handiagoz ari da lanean

maisuren agindua burutik kendu gabe:

“zuzen leundu, ez dadila konkorrik atera”

armaginen lanak



ARMAGINTZAREN MUSEOA
MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA

BASKULAGINA,

Ze lanbide da hori ?


Baskula, giltza, pletina edo txispa esaten zaio eskopetaren tiro mekanismoari.

Baskulaginak dira pieza hauen fabrikatzaileak eta "txispaginak" bezala ezagutzen ziren XIX. mendera bitartean.

Mendeetan zehar eskopetek asko aldatu dute euren itxura. Baskula izan da aurrerapen teknologikoen artean esanguratsuena. Armagin frantsesek XIX. mendearen lehen herenean asmatu zuten eta laster iritsi zen gure artera.

Garai batean kaxaginak arduratzen ziren arma baten oinarritzko hiru piezak ahokatzeaz: kainoia, txispa eta kaxa.

Sistema berria heltzean baskulaginek ordezkatu zuten beraien lana, armagintzari zegokionean garrantzia handia hartuaz gainera.



Baskulak egitea da profesional hauen oinarritzko lana.

Eskopetaren erdialdean kokatzen da eta tiroa egiteko mekanismoak ditu bere baitan. Kartutxoa sartu ahal izateko pieza multzo honi esker baskulatuko da kainoia.

*Lanbidea menperatzen duen bitartean, urte asko pasa behar-ko ditu Martintxok bere aldame-
nean. Lima ordu asko geratzen
zaizkio oraindik...*



Kainoi paraleloak dituzten eskopetek bi pletina dituzte, kainoi bakoitzeko bat, arma-
ren alde bakoitzera itsatsiak.

Katuen gainean koka-
tzen diren altzairuzko
egitura batek babestu-
riko malguki eta pieza
txikien multzoa da.



Pletinak



Eskopeta-arkua

Baskula



TAILERRA

Urtetako kea, burdin hautsa eta koipearen arteko nahasketa arraroa usaintzen da tailerrean. Egurrezko bankadak belztuta daude eta jasaten duten lan gogorraren ondorioz ertzak ere borobildu zaizkie.

Tailerrean istorioak kontatzen dizkiote Martintxori. Gizon heldu batek Eibar hiri aberatsa zeneko oroitzapena du, lan asko zegoen orduan.

Krisia etorri zen geroago. Gaur egun beste gauza batzuk ere fabrikatzen dira baina betiko armagintzak bizirik dirau.


Egun batean aitona bat joan zitzaien bisitan. Tailerreko bazkide izan zen bere garaian. Martintxorengana hurbildu eta zera esan zion: *"Aizu mutiko, zer egiten duzu horrela limatzen? eskuineko eskuarekin hartu behar duzu lima"*

Duela urte batzuk ezkerrek zailagoak zituzten gauzak. Laster ikasiko du gure alproja txikiak bi eskuarekin lima erabiltzen. Beste armaginekiko abantaila handia izango hau da, esku bat nekatzen zaionean bestearekin jarraitzen baitu.



Lanak tornu aurrean baskularen piezak limatzean datza. Ordu asko pasatzen dituzte zutik. Zementuzko zoruaren gainean egurrezko ohol-tza jarri dute erosoago egoteko. Martintxoren lankide batzuk etxeko zapatilak jan-tzen dituzte lanerako.

erramintak



Tornuan piezak eusteko baraila.



Armaginak, markarik egin ez dadin, berun xafla artean lotuko du baskula tornuan. Era askotako barailak erabiltzen ditu armaginak.



Gero eta zeregin gehiago ematen dizkiote Tintxori. Baskulak muntatzen ere erakutsi diote. Malgukia kontu handiz bultzatzen du bihurkinarekin, salto egiten duenean behatzak harrapatuko dizkio bestela.



Baskulaginak piezak elkarren artean doitu behar ditu. Neurri ezberdineko lima, zizel eta lixak bakarrik erabiltzen ditu baina bakoitzetik berrogeita hamar modelo desberdin izan ditzake. Askotan berak sortzen ditu sutegian.

Metala lantzeko lima lauak, borobilaketa, triangelu-formakoak.




PROZESUA

Saltzairuzko totxo bati sutegian estanpazioz forma emanez hasten da prozesua. Arbostatutako piezak jasotzen dituzte tailerrean. Tornuan ehun mekanizazio desberdin beharko ditu pieza bakoitzak bukatutzat emateko.

Erlojugilea bailitzan, pieza guztiak ahokatzuz mekanismoak funtzionatzea lortu behar du. Baskulen sortze eta ahokatzeko prozesua luzea da. Lehenengo lana kainoien ahokatzeko da: baskularen plataforma eskuairatuko du doitasunezko ahokadura lortze aldera.

Eskopetaren irekitze sistema eta giltza egokitzea egin behar da gero. Hirugarren urratsa kaxaurrea eta txispa jartzea da. "Eskopeta fina" bada helburua limarekin lan handia egin beharko da eta esku trebeenek bakarrik burutu ahal izango dute lan hau perfektu.

Amaitu aurretik segurtagailua sartzeko ahokalekua egin behar da eta baita apaintzeko betak ere. Azken lana kainoia baskulara modu perfektuan ahokatzeko lortu arte limatzea izango da.



Beste aste bat joan da. Ostirala da azkenean. Laneko arropa etxera eramanez behar dut. Garbia eta lisatua ekarriko dut bueltan astelehenean. Magia egiten duzu, mila esker amatxo.



EMAITZAK

Armagintzaren giltzak



Nahiz eta beste tiro mekanismo batzuk existitzen diren, euskal armagintzan aipagarriena 1580. urte inguruko asmakizun bat da, "txispa giltza" alegia. Barailekin lotutako suharri batean datza. Aurrerantz joan eta pieza marraduna urratzearen ondorioz bolbora piztuko duen txispa sortuko da eta tiroa eragingo du.



Sistema kolpekaria XIX. mende hasieran hasi zen ekoizten. Txakurrei eske erraz identifikatzen dira, hauek kainoitik ateratzen den tximinia joaz kolpekari funtzioa betetzen.





Kartutxo hutsak kanporatzeko sistema. Alejandro Lascorainek 1904. urtean egindako planoak.



Gaur egun ezagutzen dugun kainoi paralelozko eskopeta baskulagarria 1875. urteaz geroztik existitzen da.

Eskopetaren erdialdean kokatzen da baskula eta egurrezko kaxari eta kainoiei bat eginda dago. Titorako bi gailu ditu txertatuak.

Kartutxoak sartzeko arma irekitzea ere posible da, ordura bitartean armak zurrinak ziren arren.





*"Eskernik beroenak Eibarko
armaginei tailerrak ireki eta
beraien lanbidea erakusteaatik"*

Armagenen hiztegia

Baskula: eskopetaren tirorako mekanismoa.

Eskopetaren erdialdean dago kokatua eta kaxa eta kainoiari txertatua dago.

Mekanismo honen baitan kainoia baskulatzen da kartutxoak sartu ahal izateko.

Baskula-buztan: kaxan lotzen den baskularen gehigarria. Eskopetaren segurtagailuaren malgukia dauka.

Pistoi giltza edo sistema kolpekaria: aurreko sistemari lekua kendu zioan XIX. mende haserako asmakaria. Kolpekariak "tximinian" kokatutako merkuriozko fulminatoa zuen kapsula jotzen zuenean eragiten zen suhartzea.

Suharria: txispa armetan tiroa eragiteko erabiltzen den harria. Silexa da, historiaurrean ebaketa-tresnak egiteko lantzen zuten materiala.

Txispaginak: armagenen eremuan "txisperuak" bezala ziren ezagunak. Bolbora piztuko zuen tiroa egiteko giltzak fabrikatzeaz arduratzen zen gremioa. Txispa eta pistoi giltzak izan dira XIX. mendera bitartean erabiliak.

Txispa giltza: mozalekin heldutako suharria.

Aurrerantz joan eta pieza marraduna urratzearen ondorioz bolbora piztuko duen txispa sortuko da eta tiroa eragingo du. Gaur egun, eskopeta batzuen baskularen alboetako piezei esaten zaie txispa.



Eibar, 1968. Armeria Eskola Artxiboa.

Gehiago jakiteko... (beste batzuen artean)

Carmelo Urdangarin, Jose María Izaga: "12 oficios Armeros" Gipuzkoako Bazkundera, Donostia, 2003.

Ramiro Larrañaga: "Síntesis histórica de la Armería Vasca" Gipuzkoako Foru Aldundia, Armagintza eskola, Eibarko udala. Eibar, 1984.

Nerea Alustiza: "Inventario de Utillaje Armero anterior a 1950" Argitaragabea. Ego Ibarra. Eibarko Udala, 1995.

Serafin Basauri, Asier Sarasua: "Eibarko Hiztegi Etnografikoa" Eibarko Euskara Mintegia. Eibarko Udala, 2003.

Martinek...baskulagin izan nahi du
Armagintza Museoa. 2012
Eibar, tailer-hiria. Eibarko Udala,

Testuak eta diseinua:

Jose Valderrey

Marrazkiak: Yulen Zabaleta

Martintxoren marrazkia:

Jose Carreira.

Argazkiak:

Armeria Eskola Artxiboa,

Jose Valderrey, Armagintza

Musea Bilduma.



Creative Commons Legal Code
Aitortu-EzKomertziala--
LanEratorririkGabe
3.0 Unported (<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/>).
Testuak, marrazki eta argazkiak:
bakoitzaren egilea.

www.armia-eibar.net

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Kultura saila

Departamento de Cultura



Gipuzkoako Foru Aldundia.
Diputación Foral de Gipuzkoa



Eibarko Udala
Ayuntamiento de Eibar